



Lan baldintzak hobetuz, Euskal Eskola Publikoa

INDARTU

Lan Baldintzak hobetuz,
Euskal Eskola Publikoa Indartu

- LOE Erretiroa ●
- Berriak ● Boletita ● ILP Nafarroan
- Menpekotasuna eta Etxeko Langileak ●

LABORALAK

aurkibidea

Irakaskuntza Publikoa

Lan Baldintzak hobetuz,
Euskal Eskola Publikoa
Indartu 2

LOE Erretiroa 3

Berriak

Gizarte Fondoa 4

Lekualdatze Lehiaketak 4

Lurralde Ordezkaritzak 4

Urte Sabatikoa 4

Matrikulazio Kanpaina 5

Seiurtekoen
Kapitalizazioa 5

Soldata Igoera 5

97ko Soldataren
Izoketa 5

Boletina 6

HEL Nafarroan 7

Menpekotasuna eta
Etxeko Langileak 8

Hezkuntzako Laboralak

Lan-legepeko II. Hitzarmenaren Negoziazioa:

Soldata Igoera 1

Ordezkoak:
Uda Kobratzea 2

Gizarte Fondoa 2

Helduentzako menua 2

Lan Baldintzak hobetuz, Euskal Eskola Publikoa INDARTU

STEE-EILAS eta ELA sindikatuok informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat abian jarri dugu, EAEko hezkuntza sare publikoa eta bertan diharduten irakasleen lan baldintzei buruzkoa. Kanpaina ikastetxe guztietara eta irakasle guztioi zabaltzeko asmoa dugu.

EAEko eskola publikoek eta bertan lanean ari garenok administrazioaren utzikeriaren ondorioak pairatzen ari gara aspaldian. Izaera sozialeko hezkuntza-politikarik ez dago eta aurrekontuetan murrizketak gertatzen dira. Hezkuntzako arduradunen hitzak bestelakoak izan arren, Hezkuntzara zuzendutako BPGren portzentaia gero eta murriztagoa da urterik urte. Honek oztopatu egiten du ikastetxe publikoek era egokian aurre egitea sortzen ari diren behar berriei eta eragin guztiz kaltegarria dauka gure lan baldintzetan ere (nahikoa da gogoratzea, adibidez, irakasleok eta ikastetxeek nozitzen ditugun tenporaltasuna, behin behinekotasuna eta ez-egonkortasuna).

Baita ere, ikastetxeetatik pasatzeko asmoa daukagu, nahiz materialak eramateko (Kartelak, foiletoak,...) nahiz irakasleriaren zalantzak edo ezinegonak erantzuteko.

Kanpainaren ildo nagusiak:

- ✓ Enpleguko tenporaltasunaren eta prekaritatearen kontra. Euskal eskola publikoan lan eta plantilla finkoen alde
- ✓ Euskal eskola publikoaren irakasle plantillaren berriaren eta gaztetzaren alde.
- ✓ Hezkuntza sistema publikoa indartzea: euskal eskola publikoaren hezkuntza-eskaintza egonkortzea eta zabaltzea.
- ✓ Euskal eskola publikoko irakasleen lan baldintzak hobetzearen alde.
- ✓ Ikastetxe publikoen kudeaketa demokratikoaren eta zeundarritza funtzioak indartzearen alde.
- ✓ Hezkuntza-sisteman hizkuntza normalizazioaren alde.
- ✓ Euskal eskola publikoan egiten den irakaslanaren defentsaren eta duintzearen alde.

Ez izan dudarik: gurekin harremanetan jar zaitez eta ikastetxeetan egiten diren hitzaldietan parte hartu!!★

LOE erretiroa

BNGak egindako zuzenketa bat dela medio, LOEk Gizarte Segurantzaren dauden irakasle funtzionarioentzat erretiro aurreratua ahalbideratzen du

Dagoeneko Espainiako kongresuan onartutako LOEren 2. disposizio igarokorrean jasotzen da Gizarte Segurantzaren dauden irakasle funtzionarioentzat ere 60 urteekin erretiro aurreratua eskatzeko aukera:

- ✓ Aurrerapen garrantzitsu hau positibotzat jotzen dugu, hau baita **STEE-EILASek**, eta beste batzuk, behin eta berriro bere plataforma guztietan aldarrikatu duen eskubidea. BNGak LOE tramitatzen zen bitartean hau eskatzeko emendakina aurkeztu zuen kongresuan 2005eko apirilaren 26an. Proposamen hau CIG eta STEs konfederakuntzaren partetik milaka sinadurekin batera aurkeztu zen.
- ✓ Lege proposamen hau aho batez onartua izan zen LOE legearen markoaren barruan onartua izateko baldintzapean.
- ✓ Dena dela, proposamena aurrera joko zuela ziurtatzeko hasieran planteatutako eskubide mugagabe izaera kendu behar izan zen. PSOEK hau onartzeko asmorik ez zuela ikusita. Jarrera hau justifikatzeko urriaren 20an MEC eta CCOO, UGT, CSIF, ANPE, USO eta SAP sindikatuek sinatutako akordioa erabili zuen, akordio hartan ez baitziren proposamen hauek onartzen.
- ✓ PSOE jarrera honetan mantendu zen bukaera arte. Azkenean, talde parlamentario guztien aurrean bakarrik ez gelditzeko ez zuen beste aukerarik izan eta transazionala onartu zuen.
- ✓ **STEE-EILASek** testu honen onarpenaren balorazio positiboa egiten du. Jubilazio aurreratua hartzeko aukera ematen dielako Gizarte Segurantzaren erregimenean dauden milaka irakasleei nahiz EAEn, nahiz Nafarroan.
- ✓ Ezin dugu ahaztu, dena dela, gai nontzeko irakasle funtzionarioek (hemendik aurrera funtzionariatzeko direnak) zein interinoek ez dutela izango erretiro modalitate hau eskatzeko aukerarik.
- ✓ Ez dugu ahaztu behar ere, neurri honen aplikazioak muga bat daukala (2011.urtea). Handik aurrera, luza-pena edo ezarpen definitiboa negoziatu egin beharko da. **STEE-EILASek** ildo honetatik lanean jarraituko du jubilazioa aurreratua izateko eskubidea guztiona eta betiko izan arte (funtzionarioak izanda edo ez).

Amaitzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi CCOOek besteek egindako lanari esker lortutako aurrerapenak bereak egiteko duen joera★

Neurri hau martxan jartzen denean informazio zehatzagoa emango dizuegu.

berriak

Matrikulazio Kanpaina

Soldata Igoerarik?

Lehen Hezkuntza eta DBHko 1. Zikloa

STEE-EILAS sindikatuak Irakaskuntza Publikoaren Mahaian, partaide bezala, matrikulazio kanpainaren inguruko iritzi eta proposamen batzuk luzatzeko bilera bat eskatu zion administrazioari. Bilera horretan 2006-07 ikasturterako aurrematrikulazioaren epea aurreratzea planteatu eta onartu egin zen. Beraz, data otsailaren 6tik 17ra izango da (aurreko aldizkarian beste data bat agertu zen), espero dugu aldaketa gehiagorik ez gertatzea. Dataz gain, beste proposamen batzuk ere egin genizkien publizitate kanpainaren inguruan: kanpaina hasi baino 15 egun lehenago, propaganda guztia ikastetxeetara bidaltzea, kartelean adin guztietako eta maila sozio-kultural ezberdinetako umeak agertzea,... Kanpaina ez da bakarrik Lehen Hezkuntzarako eta eskola publikoa anitza da eta.

Bestaldetik Haur-Lehen Hezkuntzako ikastetxeei gonbitea luzatu nahi dizuegu inguruan Haur Eskola publikorik baduzue, Udalarena nahiz Haurreskolak Partzuergokoa izanik, horrekin kontaktuan jartzeko, oso garrantzitsua izan daiteke matrikulazioari begira eta ikasturtean zehar elkarrekin egin daitekeen lanari begira ere. Han-hemenka esperientzia politik sortzen ari dira★

Seiurtekoen Kapitalizazioa

El Otsaileko nominan jasoko dugu 2005eko seiurtekoen kapitalizazioaren banaketa. Hurrengo aldizkarian zehaztasun gehiago emango dugu oraindik ez baitauekagu kantitate zehatzaren berri★

Informazio gehiago
egoitzetan eta
www.stee-eilas.org-n

Soldataren igoera Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean negoziatzen da urtero. Aurten, ez da adostasunik egon bertan biltzen diren Administrazioa eta sindikatuen artean.

Beraz, adostasun batera heldu arte, Madrilen negoziatutako igoera aplikatuko zaigu:

- ✓ Soldataren igoera: %2a
- ✓ Aparteko ordainsarrietan igoera: Uztaileko pagan destino osagarriaren mailaren arabera gehigarriaren%80a kobratuko da eta abendukoan %100a. Hau da, %1,05 gehiago
- ✓ % 0,5a BGAEn, ordainsari diferitua. Beraz, ITZARRI pentsio planean urtarriletik aurrera gure soldataren %1,5a kotizatuko digute.

Igoera hau urtarrileko nominan jasoko da.

BPGaren igoera %3,7 ingurukoa dela kontutan hartzen badugu, argi dago igoera nimoño hauekin erosteko ahalmena galtzen jarraitzen dugula. Azken urte hauetan galdutakoa berreskuratzeko soldata igoerak eskatzen jarraituko dugu★

97ko Soldataren Iozketa

Gogoratu:

1997an PPko gobernuak funtzionario guztien soldataren izoztea erabaki zuen. Hau, Entzutegi Nazionalean errekurritua izan zen eta funtzionarioen aldeko sententzia eman zuen. Ondoren, gobernuak Auzitegi Nagusian bere errekurtsioa aurkeztu zuen aurreko sententzia ezeztatuz eta PPko gobernuari arrazoia eman ez.

Gaur egun, Estrasburgoko Giza Eskubideko Auzitegian errekurtsioa aurkeztu zen eta, badijadi, tramiterako onartua izan dela.

Sindikaturen batek saldu nahi digunaren kontra, aldeko sententzia ateratzekotan konponketa morala besterik ez zen izango inolako emaitza ekonomikorik gabe. Epaia bi gauza onartuko litu:

- ✓ Eskubideen urraketa egon dela
- ✓ Askatasun sindikalaren bortxaketa egon dela eta honekin batera negoziazio kolektiboarena era bai.

Inolaz ere, ez luke gobernu behartuko izozketaren dirua bueltatzera. Hau pena!!★

boletina

EHAA 231zk 2005eko abenduak 5

EBAZPENA: Musika irakaskuntzak eman eta toki mailako herri-administrazioen finantzazioa duten honako ikastetxe hauei dirulaguntzak emateko deialdia ebazten duena.

EHAA 232zk 2005eko abenduak 7

EBAZPENA: Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten irakasleei dei egiten diena, 2005-2006 ikasturtean, enpresetan prestakuntza-egonaldia egin ditzaten.

EBAZPENA: Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan sartzeko probetarako deialdia egiten duena.

EHAA 235zk 2005eko abenduak 13

EBAZPENA: EAEko ikastetxeetan 2005-2006 ikasturtean Curriculum Desberdinetako taldeak eratzeko baimena ematen duena.

EHAA 236zk 2005eko abenduak 14

EBAZPENA: EAEko irakasleentzat banan-banako dirulaguntzak emateko, horrela, Sail honek eskainitakoez kanpoko prestakuntza-jardueretan parte har dezaten laguntzeko.

EBAZPENA: EAEn Lanbide Heziketako Heziketa Zikloak ematen dituzten irakasleei, irakaslego horren prestakuntza-ekitaldietan parte hartzen laguntzarren, hainbat motatako banako dirulaguntzak emateko behin betiko erabakia hartzen duena.

EHAA 240zk 2005eko abenduak 20

AGINDUA: "Lagundutako kudeaketa eta plangintza industria-muntaketaren prozesuetan" izeneko prestakuntza-ekintzak Lanbide Heziketaren eremuan bete beharko dituen emate- eta ziurtatze-baldintzak ezarri dituen.

EBAZPENA: Beroren bidez, ergitara ematen da lanpostuen zerrendako aldaketek zein maisu eta maistrari eragiten dioten zehazteko prozeduraren ondorioz lortutako behin betiko zerrenda.

EHAA 242zk 2005eko abenduak 22

EBAZPENA: 2005, urteari dagokion "Isaac López-Mendizabal" izeneko lehiaketan saritutako euskal ikasmaterial inprimatuen berri ematen duena.

EBAZPENA: 2005, urteari dagokion "Migel Altzo" sari lehiaketako epaimahaiak emandako ebazpena argitaratzen duena.

EHAA 244zk 2005eko abenduak 26

AGINDUA: 2006 urteko Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) azterketa-eredua finkatzen duena.

EHAA 245zk 2005eko abenduak 27

DEKRETUA: Musika-ikasketen oinarrizko maila eta maila ertainaren curriculum eta maila horietara nola iritsi ezarri dituen.

EHAA 247zk 2005eko abenduak 29

AGINDUA: 2005-2006 ikasturteko Abelino Barriola sarirako dei egiten duena.

AGINDUA: 2005-2006 ikasturteko Urruzuno literatura lehiaketarako dei egiten duena.

AGINDUA: Ikastetxeetako Ulibarri programak 2006-2007 ikasturtean izango dituen gehieneko diru-baliabideak, programan sartzeko eta jarraitzeko baldintzak eta ikastetxe bakoitzak programarako izango dituen dedikazio-orduak zehaztuz.

EHAA 3zk 2006eko urtarrilak 4

EBAZPENA: 2005-2006 ikasturtean prestakuntza-proiektuak eta hezkuntza berriztatzeko proiektuak egin ditzaten, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei dirulaguntzak emateko deialdia ebazten duena.

EHAA 5zk 2006eko urtarrilak 9

AGINDUA: EAEko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen, Hizkuntza Eskoletako Irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegoetako funtzionario irakasleen artean lekualdatze-lehiaketa deitzen duena.

EHAA 8zk 2006eko urtarrilak 12

AGINDUA: Bigarren Hezkuntzako Institutuetako eta Gio Mailako Lanbide Heziketako Berriazko Institutuetako unibertsitateaz kanpoko sare publikoko irakaskuntzako langileen plantillak Lanpostuen Zerrenda berriaren arabera egokitzeko prozesuaren behin betiko emaitza★

HEL nafarroan

Haur hezkuntzako lehen zikloa

Iruñeko Udal Haur Eskolak erreferente pedagogiko baloratuenetako ia izan da gure artean urteetan. Haur Hezkuntzako lehen zikloan Nafarroa osoan zabaltzeko momentuan, Hezkuntza Sailak esperientzia hori esistituko ez balitz bezala jokatu du. Gobernuak udalei egotzi die Haur Eskolen sorreraren erantzukizuna, behar den planifikazio eta finantziarioari uko eginez, oso dirulaguntza eskasa emanez horretarako. Hori ikusita, hainbat Udalek Haur Eskoletako kudeaketa konkurtsora atera eta esku pribatuetan utzi dute, beste batzuk itota ikusten dute gastatu behar duten diru mordoa... Honen aurrean hainbat gizarte mugimenduk, eta erakunde politiko eta sindikatuok (STEE-EILASek barne) 2005ean birritan aurkeztu dute Ekimen Legegileak ("Iniciativas Legislativas"). Lehen saiakera apirilean izan zen, Herri Ekimen Legegilea bihurtu behar zena, 14.000 sinadura jaso eta gero, Legebiltzarreko Komisioak bertan behera utzi zuen, UPN eta CDNri esker. Bigarren saiakera 67 Udalek bultzatuta egin da, abenduaren 15ean berriro ere UPNko kontrako botoek, CDNren absentsioaren laguntzaz, atzera bota zuten proposamena.

Ekimena bultzatu zutenen zioak hauek ziren:

Hezkuntzak 0-3 tarterako duen aurrekontu murrizaren inguruko kezka; Haur Eskoletan lan egiteko eskatutako titulazioen inguruko arazoak; Haur Eskolak finantzatu beharrak Udalei dakartzkien estutasun ekonomikoak, eta horrekin batera, garrantzi handiko zerbitzu hori eskaintzerik ez dutenei dakartzkien arazoak; Zentroen eraikuntza esleitzeko orduan irizpideen inguruko ezagutzarik ez izatea eta 0-3 tarteko

zentro publiko batean plaza bat ezin eskura dezaketen eta itxarotzerrendan dauden milaka familien egoera larria.

Hau guztia konpontzeko egiten ziren proposamen esanguratsuenak hauek ziren:

1. Nafarroako Hezkuntza Departamentuak egungo eskaerari erantzuteko (...) 0-3 urteko zikloa bermatuko du hezkuntza-zentroetan.

2. 0-3 urte zikloko hezkuntza-zentroak, horien titularitatea Foru Komunitateko Administrazioari eta Udalei dagokienean, sare bakar batean bilduko dira, eta horien kudeaketa, Hezkuntza Departamentuari egokituko zaio.

3. 2006. urtetik aurrera, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, 0-3 urte zikloko hezkuntza-zentro publikoak finantzatzeko sistema bat ezarriko da. Udalek lagundu egingo dute zentro horiek sustengatzen, Lehen Hezkuntzako urteetarako ezarrita dauden baldintza berdintsuetan.

4. Nafarroako Gobernuak prezioen eta laguntzen erregimen bat ezarriko du, familia guztiei eta, bereziki, baliabide ekonomiko gutxien dituztenei 0-3 urte zikloko hezkuntza-zentroetan plazak eskuratzeko aukera emango diena.

Penaz ikusten dugu eredugarria den Iruñeko Udal Haur Eskolen sarea bertan izateagatik harro sentitu beharko zen gobernuak bizkarra ematen diola Haur Hezkuntzako lehen zikloari. Gure aldetik, beste erakundeekin batera borrokatzen jarraitzeko prest gaude, Gobernuak ez ikustearena egin arren, indarrek dantzan darraie★

Menpekotasuna duten pertsonetikiko arreta eta etxeko langileak

Pil-pilean dago menpekotasun bat duten pertsonen eskubideen gaia, baita eskubide horiek bermatzeko gizarreak jarri behar dituen baldintzak. Honen inguruan, Azkarraga Sailburuak etxeko langileen gizarrek segurantzako kuota Euskal Gobernuak ordainduko zituela iragarri zuen, baldin eta pertsona horien zeregina pertsonak zaintzea bazen. Geroago Madrilen onartu zuten Mendetasun bat Dutenak Zaintzeko Lege Aurreproiektua, non ematen den neurri batzuen artean familiei dirua luzatzea dagoela, beraiek duten egoerarako konponbideak bila ditzaten.

Luze eta sakon aztertu beharko dugu hau guztia, une honetan helarazi nahi dizuegu **Etxeko Langileen Elkartek** egindako informea, non langile hauen lan egoera kezagarria islatzen den.

ETXEKO LANGILEEN LAN ESKUBIDEAK AITORTUKO DITUEN LEGE BATEN ALDE

Barne-langile gehienek:

- ✓ Egunean 10 ordu baino gehiago lan egiten dute (%86).
- ✓ Lanaldien arteko atsedena 8 orduko behar dute (%53).
- ✓ Ez daukate egun eta erdiko atsedena (%70).
- ✓ Ezin dute etxetik atera, atsedena egunean ez bada (%55).
- ✓ Asteburuan lanaldia luzatzen dute (%62).

Hauek dira Emakunde 2005ean barne-langileen lan baldintzei buruz egindako inkestaren datu batzuk. Datuok erakusten dute urtetan Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartea salatzen ari dena egia dela: legea ez da betetzen, eta ez dira gutxi eskubideak baldintzetan lan egiten dutenak.

Barne-langile gehienak etorkin emakumeak dira. Azken erregularizazio prozesuan, enplegu-emaile ugari soldata jaitzi egin zieten, Gizarrek Segurantzaren alta ematearen truke, eta hau erabat legez kanpokoa da.

Baina Lan Ikuskatzailzak ez ditu barne-langileek diharduteneko lan baldintzak kontrolatzen, eta kontratatzaileen borondate on edo txarraren menpe uzten ditu. Ikuskatzailza ez da arduratzen ezta legeak aitortzen dizkien eskubide apurrak betearazteaz ere.

Gero eta barne-langile gehiago menpekotasuna duten pertsona adinduak zaintzeaz arduratzen dira. Hauek ez daukate ezta atean atsedena-egun libre bat ere (%26), eta asko ezin dira lan egunetan etxetik atera, ez bada zaintzen duten pertsonarekin (%55). Menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko zerbitzuen eskasiaren ondorioz, pertsona askok bilatu duten konponbidea izan da 24 orduz ariko den etxeko langile bat kontratatzea.

Etxeko lana arautzen duen legeak ez ditu kontratu idatzia eta lan ordutegiaren zehaztapena eskatzen, lanaldi bukaezinak zein janariagatik eta ostatuagatik neurri gainera beherapenak baimentzen ditu...

Zapalkuntza egoerak ekiditearren, legeak aldatu behar dira: 1424/1985 Dekretua indargabetu beharra dago, eta etxeko langileen lan eskubideak aitortuko dituen Lege bat onartzea, besteak beste, honakook jasoko dituen: gehieneko lanaldia 40 ordukoa izatea, atsedena hartzeko eskubidea eta soldata duina. Eta gehiegikeriak ekidin, eta enplegu-emaileak legea betetzera behartu★